

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## “Aniztasuna Aberastasun” I. eskola lehiaketa antolatu du Nafarroako Gobernuak

*Lehen hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako taldeek aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak, argazki eta testu batez osatuta, aniztasunaren balioaren inguruan*

Ostirala, 2018.eko urtarrilak 19

“Aniztasuna aberastasun” eskola lehiaketa antolatu du Nafarroako Gobernuak, Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendaritza nagusiaren bidez. Lehiaketaren helburua, aniztasunaren inguruko hausnarketa bultzatzeko eta ezberdina errespetatuko duen gizarte eraikitzeko beharrezkoa den begirada inklusiboa eta baikorra lantzea da.

Deialdia, aurreko lehen edizioa ospatzen duena, Lehen Hezkuntzako (3., 4., 5., 6.) eta Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako Nafarroako ikastetxeei zuzendua dago eta balioan jarri nahi du bizikidetzeta errespetatzen duen gizarte anitz bateko herritarrak izateak ematen digun aukera.

Parte-hartzaileek proposaturiko gaiaren inguruko argazki bat egin beharko dute eta argazki horri laurogei-ehun hitzeko testu bat sortu. Lanak euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez daitezke 2018ko martxoaren 9ko 14:00ak baino lehen ondoko bi helbideetako batera bidaliz: [bizikidetz@navarra.es](mailto:bizikidetz@navarra.es) edo [pazyconvivencia@navarra.es](mailto:pazyconvivencia@navarra.es).

Taldean lantzeko proposamena da, gelakide guztien eta irakasle arduradun baten parte hartzea bultzatzen duena. Lehiaketaren helburuetako bat talde-erlazioa indartzea da, iritzi, proposamen eta ideia ezberdinak errespetatuz elkarlanean zerbait ederra sortzea.

Epaimahaiak ondoko alderdiak izango ditu kontuan: proposaturiko gaiarekiko argazkiak duen orijinaltasuna, argazkiaren kalitatea, testuaren eta argazkiaren arteko lotura, testuaren kalitate literarioa, lanak bere osotasunean helarazten duen mezu baikor eta eraikitzailea. Zuzendaritza Nagusiak zenbait sari banatuko ditu apirilean antolatuko dituen Bakea eta Bizikidetzeta Jardunaldietan.

Lehiaketako oinarriak [helbide honetan](#) aurki daitezke